

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko ekainak 20 • 101.zki. •



Bukavu proiektua

Iturririk iturri: Iñaki Garmendia

Kirola: Ibai Orruño

Udalari auditoria

Aretxagazeta

79 01 05



UDAKO IKASTAROAK
ETA ERREKUPERAZIORAKO KURTSOAK
ERE BAI

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Araba Etorbidea 4 ARRASATE Tfnoa: 790132/796554

Olakua 14 OÑATI Tfnoa: 716000

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA



Udalak ondo gastatzen du diru publikoa?

Kontxi Balanzategi
(Langileak)

Bueno, ez dakit. Nik uste dut kultura arloan ez dela asko gastatzen. Baina uste dut Aretxabaletan beste herri batzutan baino gehiago gastatzen dela kulturari.




Alberto Iasisasmendi
(Langabetua)

Nik uste dut ondo gastatzen duela dirua Udalak. Baina gaur egungo beharrak ikusita langabezia gutxitzeko lanetan ipini beharko luke dirua.



Pedro Jose Etxebarria
(Jubilatua)

Ni hortan ez naiz sartzen eta ez dakit horren berri. Hori bertan daudenek jakingo dute ondoen eta eurek ulertuko dute gaia ondoen.



Naiara Azkoitia
(Langileak)

Konkretuki ez dakit zertan gastatzen duen Udalak dirua. Herria obretan dago beti, baina beste arlo batzutan ez dakit zenbat gastatzen duen.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

¡YA SABES APUNTATE!

Joan den astean Ortzadar "Atsedeen" Taldeak kaleratutako iragarkiari buruzko gogoeta da honako hau. **UDALEKU IREKIAK 96**, Aretxabaletako Udala eta Gipuzkoako F. Aldundiaren babesean eginiko kanpaina da. Bertako edukia, sarrera eta hurrei zuzendutako eskutitzez osatu da, euskara penagarrian nahiz erderaz, hau da, elebidun.

Hau ikusita salatu nahi dut, onartezina dela Ortzadar taldea bere jatorri eta helburuetan oinarrituz Aretxabaletako haurrengana erderaz zuzentzea, errentagarritasun publizitarioa lortu asmoz, ongi baino hobeto dakitenean gaur egun Aretxabaletan 16 urtez beherako denek euskara ederki menperatzen dutela.

Hau gutxi balitz, euskararen presentzia tamalgarriak erderara pasatzeko gonbidapena luzatzen du, euskara 2. mailako tramite hutsean utziz. Euskararen oihua behin eta berriz neutralizatuz, sokaren beste muturrean, Udaletxeak ez ete dauka ezer esatekorik?

Pribatizazioa omen da (hala dio Aznarrek) norabide zuzenerako pausua, baina oinarri gabe noraezean dabilena ezin da bakarrik utzi. Ortzadarrek badu zer ikasia amatxo eta aiatzo izan direnengandik, oinarriak finkatu eta kontsekuente izaten, aisialdian egiten duzuen lana estimatua bait da herri honetan.

Herritar bat

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378/94. Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Azatzako elizako erloju eta kanpaia konpondu dira

Uztailean tenisa, piraguismoa, espeleologia eta eskalada

Uztaila desberdina izan dadin gura baduzu aukera batzuk eskaintzen ditu Aretxabaletako udalak. Lau kirol egiteko aukera eskaintzen du, horien artean, tenisa, piraguismoa, espeleologia eta eskalada. Bi txandatan banatuko dira kirol iharduerak: uztailaren 1etik 12ra eta 15etik 26ra. Prezioa: piraguismoa 3.000 pezeta da besteak 2.000 pezeta. Apuntatzeko epea zabalik dago eta horretarako kultur etxera jo behar da edo 79 01 05 telefonora deitu. Epea kirol bakoitzerako dauden plaza kopurua betetakoan bukatuko da.

Urtarrilean apurtu zituen haizeak Azatzako San Juan Bautista elizako erloju eta kanpaia. Triste gelditu ziren auzotarrak, baina orain osterara ere pozik egoteko arrazoirik badute, izan ere, bai erlojua, kanpaia eta haize-orratza ere konponduta daude.

kanpaia konpontzen 27ko pluma duen grua ibili da. Erlojua barriz, pintatu egin da eta berri berria dago orain.

Ondare aberatsa

Balio handia eta aberatsa duen ondarea du Azatzako elizak, izan ere, makinaria eta kanpaia oso kalitate onekoak dira, eta jadanik ez dira horrelakoak egiten. Kontutan izan behar da, 1905. urtekoak direla bai erlojua eta baita kanpaia ere.

Funtzionamentu bitxia du makinariak. Erlojuak agintzen duenean mailuka batek jotzen du kanpaia. Gainera, erlojuak ordu osoak eta erdiak markatzen ditu. Erdietan behin jotzen du eta minutu bat barru zein ordu den markatzen du.

100 kilo pisatzen duen erlojua polea bidez mugitzen da eta 6 egunetik behin kuerda eman behar zaio. Matikuko Jose



Auzotarrak pozik gelditu dira erlojua eta kanpaia konpondu ondoren

Luis Altuna arduratzen da lan honetaz.

Auzotarrak oso pozik gelditu dira eta badituzte honetarako bi arrazoi: alde batetik, lehengo moduan kanpaiak entzuten jarraituko dute eta bestetik haize-orratzari begiratzuz haizearen norabidea zein den jakin ahal izango dute.

TABERNA

ARILUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792944

ARETXABALETA

BEIRALAN

KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

9 ikasgela eraikitzea lortu dira Bukavu proiektuan eta beste 7 hasita daude



9 ikasgela egin dira Buhimba eta Cabaraben eta beste 7 ikasgela ere egiten hasita daude

Orain urtebete gutxigorabehera Indiako Unai proiektua bukatu eta Afrikako Bukavu proiektuari hasiera eman zioten HIRUATX, Hirugarren mundu taldekoek.

Zairen dagoen hiria da Bukavu. Dagoeneko bertan egin diren proiektuen berri badute eta hona hemen orain artean lortu dena: 9 ikasgela egin dira, Buhimba eta Cabaraben. Honez gain beste 7 ikasgela egiten ere hasita daude.

Migel Gutierrez da bertako proiektuaren arduraduna eta honen

adierazpenetan emandako laguntza oso handia izan da, milaka ume eskola barik zeudelako eta neurri batean behintzat behar hori konpondu dutelako.

Laguntza gehiago eskatu

Migel Gutierrezek jakitera eman duenez ondoko herri bateko 200 gurasok laguntza eskatu diote orain, euren umeentzat gauza bera egiteko. Dagoeneko lortu dituzte 2 hektarea eta 200 metro kubiko harri.

Baina beste behar handi bat ere ikusten dute, bigarren mailako eskola hain zuzen ere. Azken hau batez ere heziketa okupazionalera bideratuta: igeltsaritza, zurgintza, mekanika, agronomia, e.a.

Bai Migelek eta baita bertako bizilagunek ere beren esker ona agertzen dute laguntza guzti honengatik, proiektuak laguntza eta bultzada handia suposatu du eta beraientzat. Eta jakina, HIRUATX taldeak ere proiektuan partehartu duten guztien laguntza eskertzen du, bide batez, animoak emanez pobretuentzako elkartasunean lanean jarraitzeko.

Beharrak eta proiektuak ez dira falta baina HIRUATXekoen esanetan proiektuaren haunditzea xehetasun guztiekin jakin behar da lehenengo, baietza eman baino lehen. Bestalde, uste dute Aretxabaletako herria gertu egongo dela.

Bukavu proiektuarentzako orain arte jasotako diru guztia 7.750.000 pezetatakoa izan da eta ikasgelen gastua 6.152.000 pezetatakoa. Hasierako aurrekontu guztia barriz, 10.000.000 pezetatakoa zen eta diru kopuru hori lortu arte lanean jarraituko dutela adierazi dute Hirugarren mundu taldekoek. Azken finean, helburua herrialde hauei beren garapenean laguntzea da eta horretarako lanean jarraitu beharra dago.

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kütisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkitekiki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



Gaua heldu baino lehenago San Juan sua egiteko dena gertu itxi behar da

San Juan bezpera, gau majikoa

Ekainaren 23an, San Juan bezpera ospatuko da. Urtero moduan ekitaldi garrantzitsuenen artean San Juan sua eta Santa Ageda mutilen tantai jasotzea izango dira. Honez gain, udal kultura batzordeak, herriko koadrilekin batera arratsaldean hasiko den jai egitaraua antolatu du.

Arratsaldeko 5,30etan bonba japoniarren jaurtiketa egongo da. Jarraian, arratsaldeko 6etan Aretxabaletako txistulariek eta buruhaun-

diak alaituko dituzte kaleak. 7,30etan kaleko animazioa HIKA taldearekin.

Arratsaldeko ekintzekin bukatzeko, 8etan Loramendi dantza taldeak dantza saioa eskainiko du herriko plazan. Gauean Txinparta musika taldearekin dantzaldia egongo da herriko plazan 10etan ekin eta goizalderarte. Tartean, 10,30etan San Juan Sua eta ondoren ohitura den moduan Santa Ageda mutilek tantaia jasoko dute.

Enpresak eratzeko gazteentzako XI. ideia lehiaketa

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailetik, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako zuzendaritzaren bitartez, enpresa berriak sortzeko Gazteentzako Ideia Lehiaketaren XI. edizioa antolatu da. 18tik 30 urtera bitartekoei zuzenduta dago. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izateko, ideia bakoitza azaltzen duen txostena aurkeztu behar da irailaren 20ra arte kultura Lurralde Ordezkaritzetan edo Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzan.

Ideiarik interesgarrienei emango zaizkien sariak, 1.100.000 pezetara bitartekoak izan daitezke eta proiektua gauatzeko asmotan elkarteak eratu gero, 2.500.000 pezeta-rainoko laguntza lortu daiteke. Proiektu guztiak garatzerakoan gazteek laguntza lortzeko modua izan dezaten, aholkularitza zerbitzuak ere eskaintzen dira. Horregatik ideiarekin bat baduzue jarri harremanetan XABIDE S. Coop eta ERAGINKOR S. Coop. enpresekin. Hona hemen helbideak: Gasteizen Mondragón 11 kalean, edo eta 25 35 00 telefonoan; Donostian, Loiola, 1ean edo eta 42 81 11 telefonoan. Azkenik Bilbon, Pza. Federico Monyúa, 6. Telefonoa: 423 01 01

TXAKOLI
a - Pintxoak
b - Kazuelak
e - Pulpo espezialitatea
r
n Andra Mari Auzunea
a Tfnoa: 79 02 25
 ARETXABALETA

DON
 Pelikularik
 hoberenak
 Lezama Merkatal zentrua
 ARETXABALETA
BIDEO


AZKENA
TABERNA
 Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



Urteak pasa ahala, Aretxabaletan edurra ikustea gero eta zailagoa dela konturatzen ari gara. Aspaldiko hotz haiek ere alde egin dute. Zergatik ote da ba? Batzuek diote aro geologiko beroago batean sartu garela, baina gehienek ustetan klima aldaketa nabarmen honen erantzule nagusia gizakia da.

34 °C eta izerditan blai

ONDORIO EKOLOGIKOAK


Negutegi efektuak, esan bezala, tenperaturaren igoera dakar eta berekin batera aldaketa klimatikoa. Urkulu baju egoteak sortzen duen larrialdia kontutan izanik argi dago guri soberan eragiten digun arazo ekologikoa dela hau.

Euskal Herria mediterraneanizatzen ari zaigu, hau da, sikatzen. Sikute honek, guztiok dakigun bezala, egardia dakar, eta baita landaretzaren galera eta lurzorua kalitatearen jeitsiera ere.

Honetaz gain, kontraesana badirudi ere, uholde gehiago sortuko dira: euria ekaitz bezala egingo du jarraian egin beharrean, eta kalitate txarragoko lur honek ez du denbora edo ahalmenik izango ur guztia asimilatzeke.

Uztak txarragoak izango dira eta kanalizazioarako obra haundiak egitera beharturik egongo gara.

Azkenik gaixotasunak ugaritu egingo dira, birus, bakterio eta beste hainbat mikroorganismo askoz hobeto hazten bait da berotan hotzetan baino.

 Mikel Arroia

NEGUTEGI EFEKTUA

Negutegi (inbernadero) efektua betidanik egon izan da planeta honetan, baina azken mende honetan, gizakiaren eragina dela eta, izugarri haunditu da.

Negutegi efektuak, funtsean, gure baserrietako negutegi batek bezala jokatu du. Eguzkitik datozen izpiak erraz heltzen zaizkigu lurrazalera, baina CO₂ geruzaren ondorioz, ezin dute espaziora alde egin eta barruan gelditzen dira gure ingurua berotuz. Ez da CO₂-a negutegi efektua sortzen duen atmosferako gas bakarra baina bai garrantzitsua.

Dudarik ez dago azken mende honetan atmosferan daukagun CO₂-aren kontzentrazioa izugarri igo dela eta igoera hau emisio industrialen eta abeltzaintza masiboaren ondorio zuzena dela (izan ere animalien arnasketa eta puzkarrak CO₂-a baino ez dira).


Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33



ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateria
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalaketak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

ARGAZKIAK

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Mitartegarai
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA



Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



Iñaki Garmendia, marrazkilaritzan trebe


Arte ederretako karreran arteak dituen atal desberdinak ikasi ditu Iñakik. Hala ere, bere burua marrazketan aurkitzen du gustoroen, lapitzezko teknikan hain zuzen ere.

Nolanahi ere, errestaurazioaren mundua ere ezaguna du. Karreran alor honetan espezializatu zen eta harrezkero errestaurazioan lan egitea zer den ere probatu du. *“Iruñeko katedrala errestauratzen ibili nintzen eta arlo honetan beste lan batzuk ere egin ditut. Hala ere, nire joerekin gutxien datorrena da. Errestaurazioak ez du kreatibitatearik. Gurago dut marrazteaz lotura gehiago duten alorrak lantzea”.*

Errestaurazio lanak, argitaletxeendako egindako ilustrazio desberdinak eta herri mailan egindako lanak sartzen dira besteak beste Iñakiren Curriculum-ean. Honez gain, “Jardineria eta paisajismo” kurtsoa ere egin zuen Bartzelonan eta gaur egun, marrazki bizidunen kurtso bat egiten dihardu Gasteizen.

Denetatik ilustragintza mundua du gogokoen. Orain artean, argitaletxe desberdindako ilustrazioak egin ditu, umeei zuzendutako liburuetan gehienbat.

Arte ederretan lizentziatua da Iñaki Garmendia. Marrazteko erraztasuna eta zaletasuna beti izan ditu atxabaltar honek. Azkenaldi honetan Loramendi Elkar-teak atera dituen barazki eta fruituen kartel horiegatik ezagunagoa egin bada ere beste esparru batzuetan ere eman du erakustera bere marrazketarako trebezia.



Bere kasa jardun du, eta bizimodu batere formalik ez daramala azaldu digu. Horregatik gustatuko litzaiokie ilustrazioaren mundu honetan lanerako txoko finko bat izatea. *“Ganorazko bizimodu finkatu bat ez daukat, batzutan lanez kokoteraino eta beste batzutan zer egin ez dakidala egoten naiz. Askotan oso bakarrik egin beharreko lana ere bada. Etxean zeure kasa egiten dituzu marrazkiak eta argitaletxeekin izaten dituzun harremanak ere telefonoz izaten dira sarri. Lan talde bat ere faltan botatzen dut”.* Lan guztietan moduan, alderdi onak eta txarrak daude. Lanaren alderdi txarrak ahaztea, lanaren fruituak ikustean lortzen du Iñakik.

Herri mailan egin dituen lanen artean, Loramendi Elkarterako egindako lanak daude. Loramendi liburuaren portadaren diseinua, merkataritzako barazkien eta fruituen kartela, Aretxabaleako idazkera liburutxoaren portada,... *“Fauna txiki bat bertso berritan”* Jon eta Aitor Sara-

suaren diskoaren azala ere berak egindakoa da.

Ikusi duzue, ez dugu urrun joan beharrik herrian ere artistak baditugula ikusteko.

“Ilustratzaile lana dut gogoko eta mundu horretan txokotxo bat topatzea gura izango nuke”



ZUBIA

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



MAPFRE

Aseguroak

Errekararren, 3
Ifnoa: 77 11 76

OSKAR GARAJEJA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Ifnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

Udalari auditoria:

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak legehausteak topatu ditu 94ko gestioan

Azken hilabeteotan atxabaltarren ahotan ibili den gaia da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) atera duen txostenaren ingurukoa. Epaitegi honek 1994ko Aretxabaletako Udaleko aurrekontuaren gestioan eta administrazio kontratazioan legehauste batzuk aurkitu zituen. Ondorengo lerroetan HKEEk zer dioen eta urte hartan Udaleko korporazioan zeuden politikariek gai honen inguruan zer iritzi duten jakin gura izan dugu.



Herri Kontuen Euskal Epaitegiak urtero zozketa bidez Udal baten auditoriak egiten ditu eta iazko kasuan gure herriari tokatu zitzaion. Hori dela eta 1995. urteko irailetik azarora bitartean Epaitegiak 1994ko Aretxabaletako Udalaren kontua fiskalizatu zuen. Ikerketa horrek urte horretako Udaleko dirua ondo erabili zen eta kontratazio alorrean prozedura egokia izan zen ala ez ikertzen zuen, besteak beste.

Epaitegiak legehauste batzuk aurkitu ditu ikerketa egin ondoren: alde batetik, aurrekontu gestioari zegozkionak, eta bestetik administrazio kontratazio arloan.

Aurrekontuari dagokionez, 1994. urtean aurrekontua azarora arte ez zela onartu eta gastuak alde aurretik eta babes barik egin zirela azpimarratzen du epaitegiaren txostenak.

Bestetik, kontratazio alorrean, legezko prozedura egokiak ez zirela erabili azaltzen du. Obra batzuk subasta bidez publikora boletinean atera barik gelditu ziren.

Kontrataturako obretan egin ziren aldaketa guztiak, legeak ezartzen duen prozedura urratu zutela jasotzen du txostenak, hitzez agindu zirelako eta aurrekontuzko diru izendapenik zegoen egiaztatu barik egin zirelako. Hau, ia 87 milioi pezetako 5 espedientetan ikusi du epaitegiak. Gainera, kontratisten lehiaketa librea mugatzeko asmoz 173 milioi pezetako hiru espedientetan egindako obra zatikapenak salatzen ditu txostenak. Zatikapen hauek, 5C zonako urbanizazio obretan, Galartzako Dorretxearen obretan eta kirol instalakuntzetan egindako obretan antzeman dira.

Ekonomia, finantza eta kontabilitateko iharduerak, egokiak

Bestalde, Epaitegiak onartzen du urte horretan Udalaren ekonomia eta finantza arloko iharduera egokia izan dela eta kontabilitate informazioak zuzenak direla. Epaitegi honen ustez, Aretxabaletako Udalaren kontu oroko-

rrak, egoki erakusten du 1994ko aurrekontuzko urtealdiaren iharduera ekonomikoa, ondarearen irudi garbia eta Udalak 94.12.31n zuen finantza egoera ezezik, egun horretan amaitutako urtealdiari dagozkion eragiketen emaitzak ere.

Aholkuak

Udal korporazio berriak gestioa hobetzeko eta bere iharduera arautegia egokitzeko duen prestasuna azaltzen du HKEEk.

Era berean, barne kontroleko sistema hobetzeko, epaitegiak gestio arlo bakoitzaren gaineko erantzunkizunak zehaztuta dituen udal egitura organikoa finkatzea gomendatzen dio Aretxabaletako Udalari. Eta Udal funtzionamendua errazteko proposatzen ditu aurrekontu arlo batzuk (diruzaintza, dirulaguntzak eta gastuaren gaineko kontrola) erregulatzea, aldizkako itxierak egitea, urtealdi osoan aurrekontuaren orekari eustea eta gastuak eta dirusarrerak sistematikoki erregistratzea.

Zinegotzien iritzia

- 1.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak atera duen txostenaren inguruan zer duzu esateko?
- 2.- Oker jokatzan ari zinetela jakinean zeundeten?
- 3.- Nola arrazoitzen dituzu legehauste horiek?
- 4.- Gertaera horiek beste udaletxe batzutan ere gertatzen direla uste duzu?
- 5.- Komunikabideetan argitaratu denaz zer iritzi duzu?
- 6.- Uste duzu Epaitegiak Aretxabaleta ejenplu gisa erabili duela?



Migel Angel Delgado (EA)

1.- Txostena interesgarria da, nahiz eta pasarte batzuk barregura eta beste batzuk haserrea eragiten duten. Gaizki dagoena - nabarmenduz- kalte egiteko intentzio garbia somatzen da prentsan argitaratu denaz.

2.- Galderaren terminologia kontutan hartuz, ez dut uste udaletxean inor "Oker jokatzan" ari zenik. Korporazioak bagenekien aurrekontua ez zegoela oraindik onartua. Hala ere,

aurrekontua aurrera eramaten ari ginen. Hau da: korporazioaren kezka Udalaren funtzionamendua zen eta ez, horrenbeste, auditoreek eskatzen dituzten formalismo legalak.

Bestela, ziurtatu dezaket oinarrizkoena bete zela, eta gastuan transparentzia, efikazia eta razionaltasuna egon zela.

3.- "Legehauste" graduak bere baitan ez du exigitzen justifikaziorik. Baina prentsako difusio manipulatuak alarrik sortu badu adibide bat jarriko dut argitzeko: Enpresa guztiak HKEEko prozedurak jarraitu ezker, gehienek enpresa itxi beharko lukete eta langileak (burokratak ezik) gosez hilko lirateke.

Hori bai, heriotza legezkoa izango litzateke, prozedurekin bat etorriko zen (edo prozedura barruan).

4.- HKEEko azken informean, ikertutako (ez oso sakonki) 60 udaletxeetatik Epaitegiaren ustetan bostek bakarrik betetzen dute "ia guztiz legea" eta esan dezaket prozedurak ez direla batetik bestera asko aldatzen.

"Irakasleak" 55 "ikasle" aprobaten ez dituenean, zeozer gaizki dago. Nire ustez, ezin dira neurri berdinez neurtu Orexa, Aretxabaleta edo Donostia.

5.- Gaizki. Badirudi, prentsa gehiago arduratu dela "morbo"-az, informazio zuzena emateaz baino. Informea irakurri duen kazetaririk ez dagoela ziurtatuko nuke. Zoritzarreko prentsa ohar batean oinarritu dira guztiak eta zuzenak ez diren detaile batzuekin osatua zegoena. Horrela, azken emaitza errealitatearekin konparatuz gehiegizkoa eta bidegabekoa da.

6.- Egia esateko ez dakit eta ez nau bereziki arduratzen. Epaitegia norbaitek "erabili" izanak da benetan kezkatzen nauena.



Aitor Irure (HB)

1.- Batez ere komunikabideek gaiari emandako tratamendu traketsa azpimarratuko nuke. Lehendabizi argi eta garbi utzi beharko litzateke inork ez duela dirurik ohostu eta zenbait titular entzun edo irakurri ondoren bada horrelakorik pentsatu duenik ere.

Azken finean, manipulatu egin da txostenaren edukina.

2.- Teknikariek, idazkariak zein interbentoreak, behin eta berriz adierazten zuten arazoa. Edonola, azaleko problematika bat izanik, hau da, fomatzen besterik ez zegoena, ez genuen funtsezko arrazoirik ikusten geldirik izateko.

3.- Arazo politikoak ziren tarteko, alkatetzaz konkretuki. Gobernu kideen arteko ezadostasunek ez zuten urteko aurrekontuak onartzeko betarik ematen.

4.- Horrela izanda ere ez litzateke bidezko justifikazioa. Gurea, arestian esan bezala, ez zen aurrez prestatutako estrategia bat, kontsekuentzia bat baizik.

5.- Arduragabekeria hutsa. Adibide gisa, zerikusirik ez zuen norbait ere tartean nahastua izan da. Sentsazionalismo kutsu horren arrazoiak agian bateren batzuk politika ulertzeko moduan izango dira.

6.- Batek daki non eta nola landu den guzti hau. Halere usteak erdi ustel direnez utz dezagun dagoenetan.



Iñaki Pierruges
(PSEE-EE)

1.- HKEEK beste gauza batzuen artean printzipio kontableak ikertzen ditu eta hor aurkitu ditu irregulartasunak, Aretxabaletako udaletxean beste hainbat administrazio publikotan bezala.

Nire ustez, garrantzitsuena Epaitegiak bukaeran egiten duen balorazio globala da. Bertan, Epaitegi honen ustetan, "Aretxabaletako Udalaren kontu orokorrak, egoki erakusten du 1994ko aurrekontuko urtealdiaren iharduera ekonomikoa, ondarearen irudi garbia eta Udalak 94.12.31n zuen finantza egoera ezezik, egun horretan amaitutako urtealdiari dagozkion eragiketen emaitza ere".

2.- Irregulartasun hauek korporazio guztiak ezagutzen zituen. Baina garrantzitsuagotzat jotzen genituen Aretxabaletako herritarren interesak, arazo burokratikoak baino, aurrera jarraitzea erabaki genuen.

Bestela, ezingo genituen martxan jarri egin ditugun gauza guztiak.

3.- Ez da nire asmoa irregulartasun horiek justifikatzea Tribunalak egiten dituen apreziazioak eztabaidagarriak direlako, eurak ikuspegi kontable batetik egiten dute eta.

Guk zuzen jokatu dugu udalaren interesak eta atxabaltarrenak defendituz.

4.- Halako irregulartasunak administrazio publiko guztietan gertatu eta gertatuko dira eta horrek ez du esan nahi gestio ona ala txarra denik.

Gestio txarra edo ona izan den Aretxabaletako herriak esango du, herrian egiten ari diren, etxebizitzak, kirol instalazioak, ibai bideraketak, e.a. ikustean.

5.- Hainbat komunikabidetan berri hau eman den modua inprudentziazat jotzen dut. Intentzioz eta fede txarrez egindakoa izan delako, jendearengan urduritasuna sortu dute hain subjetoak diren gai burokratikoetan. Honez gain, gestore on eta txarren arteko bereizketa egitea gura izan da eta hor ere ikusten da ezkutuan egon den "esku beltza".

6.- Ez dut uste Epaitegiak Aretxabaleta adibide gisa erabili duenik. Baizik eta pertsona konkretu batzuk informe hau kontestutik atera dutela herrian giro txarra sortzeko udaletzeko hainbat politikarien imaginaz zikinduz.

Batzuk lasai gaude beti zuzen jokatu dugulako eta lasai egiten dugu lo. Bukatzeko, gazteleraz esaten den moduan: "neurtzen duzun neurriaz neurtua izango zara".

OHARRA: EAJko partaideengana ere zuzendu gara baina ez dute erantzunik eman gura izan beraien ustez erreportai honek interpretazio okerrak eragin ditzakelako.

BASABE
Jatetxea

- Bazkariak
- Menuak
- Karta merkeak

Basabe Bidea z/g ☎ 79 91 84
ARETXABALETA

Iber

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2 ■ Tfnoa: 79 79 24
Aretxabaleta

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
Kroasantegia
"Janari prestatuak"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08
ARETXABALETA

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak-Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56


Ezkutu
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

URBALTZ
TABERNA

URBALTZ
taberna

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



Bizikletaz ibilbideak

3. ibilbidea:

Zubillaga eta Urrexolatik Urkulura


• **Denbora:** 2 ordu eta erdi

• **Distantzia:** 27 Km.

• **Etaparen deskribapena:** Etapa honetan Leintz Bailaratik Oiñatiruntz pasatzen gara, berriz tontorra hartuz Urkuluko urtegira itzultzeko. Ibilbide guztian zehar pista erosoak eta errepide asfaltatuak aurkituko ditugu. Kontu izan beharko da Urrexolatik Urkulura jeistean bidea nahiko txarto (aldapatsua eta lokatzatsua) aurki dezakegu eta.

• **Ura:** Ura hartzeko arazorik ez dago; Urkulu eta Zubillagan har dezakegu. Hemendik aurrera ez dago iturririk; beharrez gero Urrexolako baserrietan eska daiteke.

• **Katalogazioa:** * (Erraza).



ETAPAREN DESKRIBAPENA

- URKULU urtegiruntz igoten hasten gara eta bariantea zeharkatzen duen zubitik pasatakoan errepidea utzi eta bide zaharra hartzen dugu. (Aldapa nahiko gogorra).

- Asfaltoa utzi eta eskubitara jarraitzen dugu lurrezko pistatik.

- Berriz, asfaltaturiko bide batetara iristen gara; ezkerretara jarraitu. Hemendik 100 metrotara OTALA ZELA Ira iritsiko gara (iturria hariztiaren goiko aldean dago).

- Errepidera irten eta URKULU runtz jeisten jarraitzen dugu.

- AOZARATZA auzora iristen garenean eskubitara Matikua jatetxea dago. Ezkerretara dagoen baserri baten albotik bidexka estu bat hartzen dugu URKULUra jeisteko.

- URKULUko bidera ateratzean, ezkerretara jo eta segi presaraino iritsi arte.

- Presan ezkerretara hartzen dugu pinuditik doan errepidetik. Hemendik laster ezkerretara dagoen 2. pista hartuko dugu (lurrezkoa) pinudian sartuz.

- Aurrera jarraitu, eskumatara beheruntz doan bidea utzita.

- Eskumatara jeisten den pista hartzen dugu. Metro batzutara pista zabal eta eroso batetara agertzen gara eta hau ezkerretara hartu.

- Harrizko pista honetatik porlanezko pista batetara ateratzen gara. Jarraitu ezkerretara.

- Erreka baten alboan dagoen bidegurutze batetara agertzean asfaltatua dagoen bidea hartzen dugu ezkerreantz jarraituz.

- ZUBILLAGA, errepide nagusira irten eta eskumatara hartzen dugu (Oiñatirako bidea).

- Renault-eko garaje parean errepide nagusia utzi eta eskumatara beste bat hartzen dugu OLATE auzora eramango gaituena. Hemendik aurrera asfaltatutako bide hau jarraitu.

- Eskumatara eta goruntz doan porlanezko pista bat ikusiko dugu. Bertan, URREXOLA jartzen duen kartel bat dago, jarraitu goruntz.

- Jarraitu aurrera eskumatara doan bidea utzita.

- Jarraitu gora ezkerretara doan bidea utzita.

- URREXOLA iritsi baino apur bat lehenago porlanezko pista utzi eta eskumatara doan pista txarrago bat hartzen dugu.

- Bidegurutze batetara iristen gara. Zuzen doana hartu eta laister aldapa behera hasten da. Jeitsieran hainbat bide aurkituko ditugu ezker eta eskumatara. Jarraitu beti bide logikoa.

- URKULU, presa alboan agertzen gara. Hemendik aurrera etorri garen bide beretik jarraituko dugu ARETXABALETARA iritsi arte.

Ibai Orruño, hegats igeriketan Espainiako txapelketara

Arrasateko igeri taldeko partaidea da Ibai Orruño 16 urtetako atxabaltarra. Bai igeriketa klasikoa eta baita hegats igeriketa ere praktikatzan ditu.

Datorren asteburua, ekainaren 21etik 23ra bitartean Palma de Mallorcan egingo den Espainia mailako Hegats igeriketa txapelketan parte hartuko du.

Guk ere zorte ona opa diogu.

• **Zelan ikusten duzu zure burua txapelketarako?**

Nahiko ondo baina orain dela gutxi tendinitisa izan dut eta entrenatu barik egon naiz hilabete batean. Hala ta be, berriz entrenatzen hasi naizenean proba batzuk egin ditut eta ez dut denbora asko galdu.

• **Zein motako probetan parte hartuko duzu?**

4 proba desberdin egingo ditut; 50 metro ur gainekoan, apnea eta 100 eta 400 metro eskafandra. Honez gain bi errelebotan ere parte hartuko dut.

• **Noiz hasi zinen igeriketan?**

6 urte daramatzat Arrasateko igeriketa taldean. Futbola ez zitzaidan gustatzen eta proba egiteagatik hasi nintzen igerian. Orain artean behintzat ondo joan zait eta gustoko kirola dut. Hegats igeriketan barriz orain 5 bat urte hasi nintzen eta igeriketa klasikoa baino



gehiago gustatzen zait.

• **Zertan datza hegats igeriketa?**

Hanketan aleta bakar bat eramaten da. Eta eginbeharreko metroak, ahalik eta denbora gutxien egitean datza. Proba desberdinak daude, ur gainekoa, aleta eta tuboaz egiten dena; apnea, ur azpitik egiten dena eta azkenik eskafandra, hau ere ur azpitik egiten da baina aire konprimitutako botila batekin.

• **Nola lortzen duzue ur azpian horrenbeste denboran aguantatzea?**

Hasieran asko kostatzen da eta ur trago galantak hartzen dira. Baina denboraz ikasten zoaz eta ohitu egiten zara.

• **Gorputzeko mugimendua ere arraro samarra da...**

Bai, mugimendu arraroa da, delfinak egiten duten antzekoa. Hasieran zaila bada ere poliki-poliki ikasten zoaz.

• **Zenbateko abiadura lortzen duzue?**

Zaila da hori esatea. Baina 50 metro egiteko esaterako (Aretxabaletako pistina joan-etorri) 20 segundu egiten ditugu mutilok, neskak barriz, 23, 24 segundu.

• **Entrenamenduak zelakoak izaten dira?**

Egunero entrenatzen dugu, astean 5 egunetan eta 2 ordu baikoitzean, arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara. Egun batzutan beste batzutan baino gogorrago entrenatzen dugu. Normalean ordubete zikuan egiten dugu, takarran, berotze ariketak, e.a. Beste orduan uretako entrenamendua egiten da.

• **Zein konpetizio motatan hartzen duzue parte?**

Arrasateko igeri klubak bi motatako konpetiziotan parte hartzen du, igeriketa klasikoan eta hegats erakoan.

Entrenamentuetan banatu egiten da klasika eta beste batzutan hegatsa. Konpetizioak datozenean bat utzi eta bestea gehiago lantzen da.

• **Zer esango zenioke igeriketan apuntatu gura duen bati?**

Animatu egingo nuke. Denbora izan ezkerio behintzat esango nioke Arrasateko igeri taldera etortzeko. Taldean giro ona dago eta ondo pasatzea da gure artean garrantzitsuena. Probatzeagatik behintzat ez dadila gelditu.

“Asteko bost egunetan izaten ditugu entrenamentuak, egun bakoitzeko bi ordu”



Deba ibaia aztertzen

Deba ibaiko urak Aretxabaletan zehar egiten duen ibilbidea izan da aztergai Kurtzebarri eskolako 5. mailako ikasleentzat.

Ingurugiro eskolak bultzatutako iniziatiba geurea eginez eta IBIAIK BERRESKURATZEAREN helburuari irtenbide bat eman nahian **"Ibaialde"** proiektuan murgildu gara. Gure iharduerak lau urrats izan ditu:

1.- Landetan hasi eta Muxibar arteko uraren ibilbidearen AZTERKETA.

2- Azterketaren ERREFLEXIOA.

3- ONDORIOAK.

4- ONDORIOEN zabalkundea.

Laugarren hau da hain zuzen egin nahi duguna tarte honetan.

Deba ibaia Aretxabaletan aztertu ondoren ondorio hauek atera ditugu:

- Bizitarik ez dago.

- Bitz larregi dago.

- Aretxabaletako zati batzutan porlanezko hormak eta lurak daude.

- Landare batzuk ere badaude (toki gutxitan).

- Lantegi eta etxeetako isurketa asko daude.

- Arkarazoko erreka oso zikina dago.

- Ibaia oker kanalizatuta dago.

Hau dena aztertu ondoren inguru

giroko zinegotziarekin hitz egin genuen gure kezak azalduz eta irtenbide posibleak bilatu nahian.

Honek esan zigun Bergaran depuradora bat ipini behar zutela ura garbitzeko eta ondoren Gatzatik ur garbia bidaltzeko. Erreka utzik ez gelditzeko herrietan zehar isurketak egingo dituztela baina ur garbiena. Ur fekaekin berriz, tubo batzuk jarri eta beste leku batzuetara botatzea pentsatu dute, ibaira bota gabe.

Espero dugu metodo horrekin erreka behintzat garbia egotea.

A! Bestalde lantegietakoei esaten diote isurketarik ez botatzeko, baina ez diote kasurik egiten multaren kopurua txikia jartzen dietelako. Kopuru hori ordaintzea isurketekin beste irtenbide batzuk bilatzea baino merkeago ateratzen zaielako.

Progresoari ezin zaizkio ateak itxi!

Baina, egiten den guztia ganoraz egin behar da natura ahal den heinean errespetatuz. Ezinbestekoa dugu, beraz, ertzak birpopulatzea aurrez aipaturiko arazoei konponbidea emateko. Horrela, ibai ertzeko landaredia sartu beharko litzake, hala nola, haltzak, sahatsak, intsuak, lizarrak, zuhandorrak, urretxak eta abar.

IRIARTE**Umeen
denda**

Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

*Sebastian de la Fuente***Elena****AUTOZERBITZUA**

Murubide z/g ☎ 79 91 76
ARETXABALETA

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



San Juan kantua

Arexabaletan San Juan bezperan San Juan kantua kantetako ohitura daukagu. Umetan ikasi genuen kantu hori eta seguruenean, gure gurasoek be umetan ikasiko zuten. Egia esanda ez dakit nondik datorren ohitura hori, noiztik kantetan den edo letra nork egindakoa den. Baina kontua beste bat da. Ahozko literaturan ... barkatu, literatura ezin da-eta ahozkoa izan; ba, ahozko zerean ipuinak, kantuak, bertsoak... ahoz aho ailegatu zaizkigu. Geu izan gara beharbada tradizio hori eten dugunak. Eta ahoz ahoko bide luze horretan zertzuk galdu diren ez dago jakiterik eta bidean itxuraldatu direnak be asko izango dira.

Gure San Juan kantuak letra "xelebre" samarra daukala pentsatu izan dugu beti eta sarri aitatu dugu gai hori lagunen artean.

Lehengo batean gauza kurioso bat topatu nuen, 1930eko *Euzkadi* egunkarian. Eibarko ikastoletako umeez sasoi hartan kantetan zuten San Juan kantua zekarren. (Mondragoen kantetan dena antzekoa ei da). Atzenengo parrafoa baino ez dut eskribiduko:

Ibai guziak agortu dira,
Arrai goxoak agiri
Mutil txikiak uda berrian
Nun egingo dute igari.

¡Ay au eguna zoragarria!
Kontsolatzeko mundu guzia.

Arexabaletakoa, barrez, ez da guztiz bardina:

Hau da egia, dana guzia
Konsolatutzeko Euskalerrria (mundu guztia)

Ibai guztiak agortu dira
arrain gaixuak egarriz,
datorren urtian mutikotxuak
nun egingo dute igari.

Ez dakit zein den orijinala edo zein dagoen hobeto; baina kuriosoa pentsatu zitzaidan eta horretxegatik atrebidu naiz hau idazten. Nire asmoa ez da letra kanbiatzea edo kanbiatu eragitea; nire asmoa baten batzuk burua kantsatzea baino ez da. San Juan bezperako gaba majikoan guk geurea kantetan jarraituko dugu, Arexabaletako bertsoia; baina kantatu! bildur barik.

JON ANTIXIA



Aurten ere Eup, Eup...UI!!!



M.J. Aretxaga

Zalantza barik oihu hauek behin eta barriz entzungo ditugu domeka gauean **tenteixaren** igotzea dela eta. **San Juan suaren** azkenengo txinpartak itzaltzerakoan herriko 60 bat gazte inguruk ekingo diote lanari. Guztien artean eta gaur egungo adelantuekin samur alztatuko dute. Ni neskatila nintzenean haiek bai gizonak! Egurrezko eskilarekin alztetan zuten tenteixe. Oraingoak barriz, gaztetxoak dira.

Gainera ez dute hauek soldaduzkaren hurbiltasuna igartzen, orain banaka batzuk besterik ez dira joaten, eta laister inor ere ez.

Baina gazte kontu hauek utzita gazteago diren beste batzuekin sartuko gara. **Kurtzebarri eskolako 3. mailako neska-mutilek** Hezkuntza saileko euskera zerbitzuak / antolatutako Abelino Barriola Deklamazio saria irabazi

dute. Lehiaketan klaseko 14 ikasle 12k parte hartu dute. Iparraldera 4 egunetako bidaia irabazi dute. Irakaslea **Karme Igartua** da eta honek ere bidai bat irabazi du baina oraindik ez dakigu nora. Zorionak!

Zoriontzeko beste lagun batzuk ere baditugu. Azken hauek gainera errazago irabazi dute saria. Arlutzeko porrako irabazleak, **Igor Etxabe, Zigor Bengoa, Juamma Vales, Jokin Idigoras** eta **Jabier Eraña** (azken hiru hauek batera) izan dira. Bakoitzak 195.000 pezeta irabazi ditu eta gainera hau gutxi balitz azkenengo biek Arrasateko Monte tabernako Giroko bigarren saria irabazi dute. Azken hauek urte batzutarako zorte guztia gastatu dute kolpean.

Bestalde, uda partean ohikoa den moduan Arlutz saskibaloitxo txapelketa jokatu da. **Señor Arebalo** taldea izan da irabazle eta bigarren **Sin pagar** taldea gelditu da. Orain Arlutz futbito txapelketa hasiko da.

Aurten gainera, neskek ere parte hartzeko aukera izango dugu. Ni koadrilakoak animatzen nabil eta besteok ere animatu zaitezte.

Bukatu dut. Hemen kriston beroa egiten du eta ni banoa ondartzara, ea iazko bikini oraindik ondo geratzen zaidan.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta etxeko lanak egin. Tfnoa: 77 02 13
- Idazkaritzan diplomatuak lanak ordenagailuz pasatuko nituzke. Tfnoa: 79 31 47.
- Euskeraz, ingelesez, gaztelaz eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

ETXEBIZITZA

- Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefonoa: 74 01 17
- Pisu bat salgai dago. 83 m² ditu eta jantzia. Solohaundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Telefonoa: 79 45 31.
- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurrazpiko lehenengo pisuan. Telefonoa: 79 05 28

- Garaje bat salgai dago Murubide kaleko 15. zenbakian. Telefonoa: 77 00 97.

- Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

- Pisu bat salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerrian eta arratsaldean).

- Laredon pisua alokagai dago. Tfnoa: 79 31 47.

- 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilen pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Mari Karmen Etxeandia

"Pertsona, asko hobetu daiteke baina erosotasunagatik ez du askotan ezer egiten"



Geme's Aretxabaletan dugun edertze aretoetariko bat dugu. Xeli eta Mari Karmen birkiek lan egiten dute bertan. Bi urtez edertze teknika ikasten aritu ziren Gasteizen eta ordutik beste ikastaro batzuk ere egin dituzte. Gaurkoan Mari Karmen Etxeandiarekin izan gara.

• Non ikasi zenuten makilatzen?

Gasteizen 2 urte egin genituen. Horrez gain kursilo desberdinak egin ditugu gehiago espezializatzeko.

• Jendeak tendentzia gehiago du etxean depilatzeke ala horrelako lekuetan?

Horrelako lekuetan. Etxean ere jende asko depilatzen da baina askotan benetako "txapuzak" egiten dira, kutxilaz, e.a.

• Zein da jendeak gehien eskatzen duen zerbitzua?

Depilazioa.

• Zirugia estetikoaren alde zaude?

Bai, beharra izan ezker behintzat eta pertsonaren onerako izaten bada, hori norberak ikusi behar du.

• Ileapaindegiek kotileo gunea izateko ospea dute. Zuen saloia ere horrelakoa da?

Eguneko gauzak beti komentatzen dira baina familiko gauzetaz edo gauza pertsonaletaz gehiago berba egiten da.

• Gizonezkoak etortzen dira?

Gutxi, baina banaka batzuk bai.

• Emakumea zelan dago hobeto makilatuta ala barik?

Nire ustez edade batetik aurrera makilatuta hobe, apur bat ez bada ere.

• Zergaitik ez dira gizonak makilatzen?

Ohiturarik ez dutelako, baina ezkontzerako orduan makilatzen dira batzuk.

• Edertzearen azken tendentziak?

Makilaia iraunkorraren teknika. Gehienbat adineko jendearentzat da, bekaina eta espainetan egiteko gehienbat. Tatuia modukoa da, perfilatzea moduan.

• Jendeak dituen konplejurik haundienak?


Ilea, bigotea izatea, eta zelulitisa.

• Gustokoen duzun kolorea?

Zuria eta beltza.

• Pertsonaia elegante bat...

Isabel Preisler.

 Jennifer Nelson
Amaia Murgiondo



Irakurtzeko liburuak





Titulua: Kontaidazu eguzkiaren berri
Idazlea: Esteban, Angel
Argitaletxea: Bruño, 1995
Saila: ZiaBoga, 21

Hiru sagutxo beren aitonarekin bizi dira nekazari batzuen etxeko sotoan. Ez dute ezeren faltarik eta leku aparta da bizitzeko. Egun batez sagutxo txikiak eguzki-izpi bat ikusten du eta bere bizitza aldatuko da.

Ipuin xarmangarri honek bizitzan erabakiak hartu beharra dagoela azaltzen du, nahiz eta ez jakin nora iritsiko garen.

Angel Esteban ilustratzaile bikaina izateaz gain idazle bezala ere zer esanik ba duela ikusten da liburu honetan. 8 urtetik aurrera irakur daitekeen liburu da eta txikiagoei kontatzeko ere oso polita. Kolorezko ilustrazio ederrekin lagunduta gainera.

 Joseba Lopez de Armentia



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira


Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

BASTER-ALDE
JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

BERGARA



Ekainak 28...

ARGAZKI LEHIAKETA

VI. kirol argazki lehiaketa. Kultura etxean. Ekainaren 28tik uztailaren 7ra bitartean.

Ekainak 30 domeka

SAN MARTZIALGO ERROMERIA

ESKORIATZA



Ekainak 28 -1

SAN PEDRO JAIAK

Ekainaren 28tik uztailaren Tera.


Ekainak 28: Txupinazoa, Dantzaldia Legazpi taldearekin, nagusien tanborrada, e.a.

Ekainak 29: Goitibehera jeitsiera Apotzako bidean; herri kirolak; Gorosarri dantza taldearen dantza saioa; esku pelota partiduak; Estrellas Azules taldearekin dantzaldia, e.a.

Ekainak 30, KOADRILEN EGUNA: Makailo lehiaketa, txaranga, herri bazkaria, insumisoen olinpiada, karaoke eta diskoteka. Garrantzitsuena koadrilek jartzen duten giroa izango da.

Uztaiak 1, UMEEN EGUNA: Jokuak, umeentzako herri bazkaria, haurren tanborrada, eta Gozategi anaiekin dantzaldia.

ARRASATE



Ekainak 22

INTSUMISO EGUNA

Ekintza desberdinak egongo dira egunean zehar, bizikleta marxa, herri bazkaria, e.a. Gaueko 10,30etan antzerkia Monterron parkean Txomin Barulloren "Hedor Guerrero" antzezlanana.

Ekainak 23tik 26ra

SAN JUANAK

Ekainak 23 domeka

GOITIBEHERA JEITSIERA ARRASATEKO UDALA AUZOTIK BEHERA

Goizeko 11etatik aurrera.

Ekainak 27 eguena

ZINEA

"Juego de lagrimas" Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

Ekainak 28 eguakotxa


KONTZERTUA

Donostiako orfeoia eta Euskadiko Orkestraren kontzertua. Amaia Antzokian.

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

ZARAIA
TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



MENDIOLA
ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA



Ekainak 23 domeka

SAN JUAN BEZPERA

Egitaraua hamabostean behin atalean.

HERNIOZABAL

ZARAIA MENDI TALDEAK

Herniozabalera irteera. Irteera ordua 8,30etan Zaraia kaletik.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Elgoibar-Sasiola-Lastur-Itziar-Deba-Aretxabaleta. 101 Km.

Ekainak 29 zapatua

**ELKARRIK ANTOLATUTA
MANIFESTAZIOA BILBON**

Ekainaren 29an Elkarrik antolatuta manifestazioa egingo da Bilbon. Aretxabaletatik autobusak aterako dira eta joan gura izan ezker Arlutz eta Artano tabernetan eman behar da izena. Irteera ordua arratsaldeko 4retan izango da Azbetik.

Arlutz futbito txapelketa hasteko getu

Aurten hirugarren aldiz antolatuko da Arlutz futbito txapelketa. Uztailaren 1ean emango zaio hasiera txapelketari eta horretarako taldeek ekainaren 26a baino lehenago eman beharko dute izena Arlutz tabernan. Prezioa 5.000 pezeta da eta izena ematerakoan ordaindu beharko da. Hona hemen txapelkateko arauak: Taldeak 10 lagunez osatutakoak izan beharko dute. Partidu guztiak astebarruan jokatu dira, 5,45tatik aurrera. Neskei ere apuntatzeko gonbita egiten zaie.

Ekainak 30 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Durana-Gamara-Murgia-Oro-Zarate-Gopegi-Legutiano-Landa-Aretxabaleta. 104 Km.

Uztailak 4 eguena

BERBARI HITZARMENEO BATZARRA

BERBARI euskararen hitzarmeneko batzarra egingo da Loramendiren lokalean arratsaldeko 8retan.

Uztailak 7 domeka

ARETXABALETAKO X. MARGO

LEHIAKETA

ANDRA MAIXETAKO KARTEL

LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Uztailean aerobic-a

Uztailean zehar aerobic-a egiteko aukera izango da. Goizez izango dira klaseak eta ordutegia jendearen araberara jarriko da. Prezioa: 2.500 pezeta. Informazio gehiagorako deitu 79 07 93 telefonora eta Piligatik galdetu.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltea 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otorora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

J.J


ITURGINTZA

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Galaxy

Olano eta Mugarrirekin edonora!

*Abraham Olanok
Galaxy autoa
aukeratu du.
Zorionak!*



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tfnoa: 79 07 44-54 • Faxa: 79 62 54

MUGARRI